

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – 2. MOTA ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO TOKIKO EKINTZETARAKO DEIALDIAREN BAITAN

Helburua	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda eta langabezia dauden pertsonen eta Lea-Artibaiko herrietan (Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Ziortza-Bolibar) kokaturik dauden enpresek egingo dituzten merkatu arrunteko kontratazioak laguntzea da.
Onuradunak	Lea-Artibai osatzen duten udalerrietan legalki eratuta eta egoizta soziala bertan daukaten enpresak edo EAEn sozietatearen egoizta izan eta Lea-Artibai eskualdea osatzen duen udalerriren batean lantegia edukitzea.
Kontratazioen ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Langilea Lea-Artibaiko udalerrri batean egon behar da errolatuta. ▪ Kontratua hasi baino lehen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar da langilea lan eskatzaile gisa. ▪ Kontratua 2016/12/01etik 2017/12/31ra bitartean sinatu behar da. ▪ Gutxienez, 6 hilabeteko kontratua izan behar da. ▪ Sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egondako plantila osoaren gainean enpleguaren sorrera garbia ekarri behar du. ▪ Edozein modalitatearen bitartez formalizatu ahalko da (prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuen bidez izan ezik).
Laguntzen zenbatekoa	Jardunaldi osoan eta sei hilabete edo luzeagoa den kontratu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 6.000 eurokoa izango da. Halaber, jardunaldi murriztuko kontratuen kasuan jasotako diru-laguntza proportzionala izango da.
Emateko prozedura	Norgehiagoko araubidearen bitartez esleituko dira laguntza, ondengoak izanik irizpideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde onuradunaren tamaina (langile kopurua) gehienez 25 puntu ▪ Kontratuaren iraupena gehienez 25 puntu
Bateragarritasuna	Bateraezina da, Gizarte Segurantzako hobariekin ezik.
Aurkezteko epea	2018 otsailaren 12an, 14:00etan bukatuko da.
Informazio gehiago	LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 616 90 88 egalletebeitia@leartibai.com